

**PROTOKOLOA, LANEAN SEXU-JAZARPENARI ETA SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENARI AURRE EGITEKO
DENA**

1.- SARRERA

Lan-eremuko sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera ezagun dira emakumeen eta gizonen arteko aukera- eta tratu-berdintasunari zuztarretik eragiten dioten arazoak diren neurrian; eta badira sexuan oinarritutako diskriminazio-erarik larrienetako bi, nazioarteko, Europako eta estatuko araudiek jasotzen duten legez. Horrela, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen dutenez, enpresa guztiek —bai eta Administrazio Publikoak ere— lan-baldintza egokiak sustatu behar dituzte sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera saihesteko, eta prozesu espezifikoak ahalbidetuko dituzte enpresetan sor daitezkeen kasuak bideratu eta konpontzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2006ko azaroaren 7an, «Bizkaiko Foru Aldundiaren langileen laneko jazarpenerari dagozkion prebentzioari eta kexen konponketari buruzko jardueraren protokoloa» onetsi zuen, eta haren barruan sexu-jazarpenera jaso; protokolo hori geroago aldatu zen, 2014ko abenduaren 2an; aldaketa horren bidez, sexuan oinarritutako jazarpenera protokoloaren eremuaren barruan sartu zen. Denbora igaro da eta esperientzia metatzen joan gara; bada, hori guztia ikusita, foru-erakunde honen ustez, behar-beharrezkoa da protokolo berezi bat egitea sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera goitik behera prebenitu eta haiei heltzeko; hau da, zelan prebenitzen diren eta zelan heltzen zaien langile guztien eskubideak —askatasuna, intimitatea, duintasuna, osasuna, sexu-askatasuna edo osotasun fisikoa— urratzen dituzten egoerei, langileok baitira lehentasun Foru Aldundiaren lan-eremuan.

Protokolo horren helburua langune jakin bat lortzea da, hau da, pertsonen aniztasuna errespetatu eta harreman berdinezaleak sustatu eta bermatzen dituen; bada, protokolo hori Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren lehentasunezko berdintasun-ekintza da, zergatik eta pertsona guztientzako inguru berdinezale eta zuzen ematen duen eginkizun publikoaren oinarria delako; bada, protokolo horrek jarduteko prozedura bat arautuko du aurkeztzen diren kexak edota salaketak konpontzeko, eta protokolo hori berdintasun-politiketan eta laneko arriskuak prebenitzeko politiketan datza, sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera pairatzeko lan-arriskuak kendu edo murrizteko neurri gisa; edozelan ere, protokolo hori salbuespenez aplikatuko da, behin prebentzio-neurriek huts egin ondorik. Horregatik, eta protokolo honi dagokionez, ekintza-mota bi ditugu gogoan:

- Jazarpen-egoerak edo jazarpen izan daitezkeen egoerak prebenitu eta saihestera jotzen duten neurriak ezartzea.
- Jarduteko prozedura bat ezartzea jazarpenagatik kexa edo salaketaren bat agertzen denerako.

2.- KONTZEPTUAK ETA ADIERAZPENAK

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun eragingarrikoak, oinarriko lege-marko gisa, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, betebeharra ezartzen dute protokolo bat egiteko, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitu eta haiei heltze aldera. Horri begira, kontzeptu hauek finkatzen dira:

2.1. Sexu-jazarpena: pertsona baten duintasuna iraintzea asmo edo ondorio duen izaera sexualeko portaera berbal, ez-berbal nahiz fisiko oro –pertsona horri edo beste bati eragiten diona–, bereziki testuinguru beldurgarria, iraingarria edo umiliagarria bada eragindako pertsonarentzat.

Beraz, ondorio legez atera behar dugu portaerek izan behar dutela:

- Horiek jasotzen dituen pertsonak nahi ez dituenak.
- Izaera sexualekoak edo konnotazio sexualekoak.
- Helburu legez, portaera horien xede den pertsonaren duintasunari erasotzekoak direnak, edo hari inguru beldurgarri, areriotso, apalgarri, umiliagarri edo iraingarria sortzekoak direnak.

Jazarpen-mota honen erak, betiere hura ekinaren ekinez edo behin eta berriz egin daitekeela kontuan hartuta, besteak beste, honako modu eta ekintzen bidez adieraz daitezke:

Hitzezkoak

- Sexu-xantaia egitea; haren bidez, jazarritako pertsona derrigortua da jazarlearen sexu-eskeen mendean jartzera baldin eta enplegua galdu nahi ez badu edo laneko onura edo baldintza batzuk galdu nahi ez baditu, berbarako, lan-sustapena, prestakuntza hartu ahal izatea, alokairua igotzea edo lanpostu batetik beste batera aldatu ahal izatea, besteak beste.
- Mehatxu egitea argazki edo bideoak jendeari erakutsiko dizkiola, haietan mehatxatua beste pertsona batekin sexu-harremanetan ari delarik.
- Pertsona baten sexu-biziaren gaineko zurrumurruek zabaltzea.
- Ohar iradokitzaile eta ezatseginak, txisteak edo iruzkinak egitea irudi edo itxuraren gainean, bai eta nahita hitzezko abusu lizunak egitea.
- Sexu-iradokizunak egitea edo sexu-mesedeak eskatzea.

- Errepresaliak hartuko dituela mehatxatzea, behin sexu-iradokizun edo sexu-eskeetatik baten bati uko egin ondoren.
- Sexu-biziari buruz itauntzea.
- Inbaditzea edo hitzorduak behin eta berriro eskatzea, behin ezetza eman eta gero.
- Telefono-deiak egitea sexu-izaerako kontuen gainean.

Hitzik gabekoak

- Keinu edo mugimendu likitsak behin eta berriro egitea.
- Sexu-izaera iraingarria duten gutunak, oharrak edo posta elektronikozko edo beste baliabide telematikozko mezuak.
- Gorputzari begirada lizunkoiak ematea.
- Sexu-eduki agerikoa duten grafikoak, binetak, marrazkiak, argazkiak edo interneteko irudiak erabiltzea.
- Pertsonak modu klandestinoan ikuskatzea leku pribatuetan, hala nola komunetan edo aldageletan.

Fisikoak

- Pertsona bat zokoratzea edo berarekin nahita eta beharrik gabe geratzeko ahalegina egitea.
- Nahi ez den kontaktu fisikoa nahita egitea (ukituak, igurtziak, atximur egitea...).
- Gehiegi hurbiltzea.

2.2. Sexuan oinarritutako jazarpena: pertsona baten sexuarekin zerikusia duen portaera, pertsona horren duintasunaren aurka egiteko eta inguru apalgarri, umiliagarri edo iraingarria sortzeko asmoarekin edo ondorioarekin.

Sexu-jazarpenean ez bezala, kasu honetan ez da beharrezkoa portaera fisikoa, ezpada jazarpen moral eta psikologikoa da oinarrian, eta nagusiek zein lankideek edo mendekoek egin dezakete.

Portaera edo ekintzak hauek dira:

- Horiek jasotzen dituen pertsonak nahi ez dituenak.
- Pertsona baten sexuarekin edo sexu-joerarekin lotutakoak.

- Helburu legez, duintasunari erasotzekoak direnak, edo inguru beldurgarri, areriotso, apalgarri, umiliagarri edo iraingarria sortzekoak direnak.

Jazarpen-mota honen erak, betiere hura ekinaren ekinez edo behin eta berriz egin daitekeela kontuan hartuta, besteak beste, honako modu eta ekintzen bidez adieraz daitezke:

- Umore sexista erabiltzea.
- Tradizionalki beste sexuko pertsonak egin izan dituzten lanak hartzeagatik pertsonak barregarri uztea.
- Adierazpen sexistak eta iraingarriak erabiltzea gaitasunak, konpetentzia teknikoak edota trebetasunak gutxiesteko —adibidez, “emakumezkoa izan behar”, “harrikoa egiteko bakarrik balio duzu”...—.
- Etengabeko gutxiespen publiko zein pribatuak egitea pertsona bati buruz edo haren lanari buruz, gaitasunei buruz, konpetentzia tekniko edo trebetasunei buruz, betiere haren sexua dela-eta.
- Agindu iraingarriak ematea pertsonaren sexua dela-eta.
- Pertsona bati haren gaitasunari dagokion lanpostua edo betebeharra baino beheragoko bat ematea, sexua dela-eta.
- Nagusien aginduei edo jarraibideei kasurik ez egitea, nagusiak emakumezkoak badira.
- Pertsonak adingabeak balira bezala, mendekotasunen bat balute bezala edo maila intelektual baxua balute bezala tratatzea (hitz egiteko moduan edo tratuan) sexua dela-eta.
- Pertsona bati dagozkion lizentziak edota baimenak ukatzea, modu arbitrarioan eta sexua dela-eta.

3.- APLIKAZIO-EREMUA

Protokolo hau langile guztiei —funtzionarioei nahiz lan-kontratudunei— aplikatuko zaie, lotura juridikoa edozein delarik, eta behin-behineko langileei eta kargu politikoei ere Bizkaiko Foru Aldundiaren kasu guztietan, bai eta foru-erakunde honetan euren eginkizunak betetzen dituzten praktiketako langileei eta bekadunei ere.

Protokolo honen xede diren jazarpen-mota bietako edozein foru-aldundi honetako langileen eta foru-aldundiarekin kontratu bidez lotutako kanpo-enpresa bateko langileen artean gertatzen bada, orduan protokolo honetan jasotako prozedura beteko da, baina eragindako enpresen artean modu koordinatuan hartuko dira neurriak, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legean ezarritakoarekin bat.

4.- PREBENTZIO-NEURRIAK

Jazarpena edo jazarpen izan daitezkeen egoerak prebenitzeko, protokolo honetaz gainera, hurrengo neurri hauek ezarriko dira:

- Adierazpen formal eta idatzia egitea, bai erakundeak sexu-jazarpenaren mota guztiei eta sexuan oinarritutako jazarpenaren modu eta modalitate guztiei uko egitearen inguruan, bai eremu horietan jarduteko printzipioen inguruan, eta adierazpen hori Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiei helaraztea.
- Foru-erakundearen begirune- eta zuzentasun-ingurune bat sustatzea, bai tratu-berdintasunaren, begirunearen, duintasunaren eta nortasunaren garapen askearen balioak indartuz, bai langileak prestatzeko ekintzen bidez —Prestakuntza Planaren barruan—, bai langileok informatu eta sentiberatzeko ekintzen bidez.
- Foru Aldundian lehenengoz sartzen den pertsonaren integrazioa erraztea, eta horretarako isolamendu-egoerak saihestuko dira jarraipena eginez, bai hasierako harrera egiteko prozesuan bai prozesu horren ostean ere.
- Eskura dauden legezko baliabide guztiak erabiltzea, bai eta antzematen diren jazarpen-kasuak prebenitzeko eta haietan esku hartzeko beharrezkoak diren antolaketa-baliabideak hornitzea ere.
- Protokolo hau “Atarileku”n —intranetean— argitaratzea, zertarako eta langile guztiak hura ezagutu dezaten eta jazarpen-kasu baten aurrean zelan esku hartu behar den jakin dezaten.

5.- JARDUTEKO PROZEDURA

5.1. Printzipioak eta prozeduraren aldetiko bermeak

- 5.1.1. Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren arloko kexa edo salaketa guztiei buruzko informazioa printzipio hauen arabera erabiliko da:
 - Zerikusia duten pertsonen intimitatea, konfidentziasuna eta duintasuna babestea.
 - Ustez jazarria den pertsona babestea haren laneko segurtasun eta osasunari dagokionez Foru Aldundiaren eremuan.
 - Salatzailaren nortasun eta inguruabarren babesa bermatzea.
 - Kasuarekin zerikusirik ez duten pertsonen ezein informaziorik edo informazioaren ezein zatirik ez zabaltzea, ikerketarako beharrezkoa denean izan ezik.
 - Prozedura arin eta bizkorra izatea, zertarako eta sinesgarritasuna, gardentasuna eta ekitatea eskaintzeko.

- 5.1.2. Prozeduran esku hartzen duten pertsona giltzarriei dagokienez, esku-hartzaileok eskubide hauek dituzte:

(Kexaren edo salaketaren aurkezlearentzat)

- Tratu zuzena jasotzea.
- Bere konfiantzako pertsona batek lagun egitea prozesu osoan zehar.
- Bermeak jasotzea espediente pertsonalean salaketaren ezein erregistrorik ez agertzekoa —baldin eta salaketa fede onez egin bada—; hala ere, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren unitate egokian idatzita geratuko dira egindako jarduketak.
- Salaketaren bilakaerari buruzko informazioa jasotzea.
- Kexaren edo salaketaren ondoriozko ekintza zuzentzaileei buruzko informazioa jasotzea.

(Sexu-jazarpenagatik edo sexuan oinarritutako jazarpenagatik salatua denarentzat)

- Tratu zuzena jasotzea.
- Kexaren edo salaketaren informazioa edukitzea.
- Salaketaren kopia jaso eta erantzutea.
- Bere konfiantzako pertsona batek lagun egitea prozesu osoan zehar.
- Salaketaren bilakaerari buruzko informazioa jasotzea.

5.2. Hasiera

- 5.2.1. Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena dagoelako susmoa dagoenean hasiko da prozedura; susmo legez ulertuko dira Bizkaiko Foru Aldundian langile bat jazarpen-mota bietako bat pairatzen ari delako itxuran edo egiantzean oinarritzen diren aieruak, betiere protokolo honen 2. apartatuan adierazten den bezala.

Prozedura hori hasiko da kontuan hartu barik ustez jazarria den pertsonak Lan Ikuskatzailertzan edo organo judizial eskudunetan salaketa aurkezten duen edo ez; edozelan ere, eta kautelaz har daitezkeen neurrien kalterik gabe, akzio bat bide judizialean aurkezten bada, orduan etenda geratuko da protokolo honetan jasotzen den prozedura.

- 5.2.2. Edonork aurkeztu ahal izango du kexa edo salaketa bat jazarpen-susmoei buruz, baldin eta kexa-egilea edo salatzailea bada:

- Eragindako pertsona
- Egoeraren berri duen edo haren lekuko den langilea.

- Prebentziorako eskuordea.
 - Sailen arteko Talde Teknikoko (Berdintasun Taldeko) kidea; horiez gainera:
 - Bizkaiko Foru Aldundia bera, egoeraren berri duenean.
- 5.2.3. Prozedura hori kudeatzeko ardura duen organoa Aholkularitza eta Laguntza Batzordea izango da; organo hori osatzen dutenak hauek dira:
- Funtzio Publikoaren zuzendariordea edo haren eskuordea, batzordeburu legez jardungo duena.
 - Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuko burua edo haren eskuordea.
 - Genero Politiketarako eta Dibertsitaterako idazkari teknikoa edo haren eskuordea.
 - Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuko psikologo bat.
 - Prebentziorako eskuordeen ordezkari bat, Langile-batzordeak edo Enpresa-batzordeak izendapenak egiteko ezartzen duen sistemaren bidez.
 - Langileriari buruzko Lege Zerbitzuko Aholkularitza eta Arauak Bideratzeko Ataleko burua edo haren eskuordea, idazkari legez jardungo duena.

Ahalegina egingo da osaera horretan ordezkartza orekatua egon dadin; era berean, kideek oinarritzko prestakuntza izan beharko dute berdintasunaren arloan eta, bereziki, sexu-jazarpenean eta sexuan oinarritutako jazarpenean.

Batzorde horretako kideek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23-2 artikuluan adierazitako inguruabarrak dituzten Foru Aldundiko langileek eta agintariek bezala, ez dute eskurik hartuko protokolo honetan arautzen den prozeduran; era berean, eragindako interesdunek errekusazioari eragin ahal izango diote prozeduraren izapidetzearen edozein unetan. Abstentzio-arrazoi bat edo ezinbesteko kasuren bat egoteagatik batzorde horretako kideren batek ezin badu parterik hartu prozedura honetan, orduan kasu zehatz horretarako ordezeko bat izendatuko da; ordezekoak eduki beharko du batzordeko gainerako kideentzat eskatzen den prestakuntza.

Ahalmenei kalterik egin barik, batzorde horrek bere baitako pertsona eskudun bat izendatu ahal izango du —hau da, “erreferentziatzeko pertsona”—, eta horixe izango da prozedura hasteko ardura izango duena —zehatz-mehatz, metodo informalean— eta gatazka ebazteko ahaleginduko dena; zeregin hori, berriz, Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuko psikologo bati emango zaio lehentasunez.

5.3. Prozedura

Prozedurak metodo informal bat eta metodo formal bat izango ditu egoerari heltzeko, zergatik eta salatzailearen ahala baita metodo informala aukeratzea edo ukatzea, eta, azken kasu honetan, ebazpena metodo formal baten bidez eman dadin hautatzea.

Prozedura metodo bietatik edozeinen bidez hasteaz gainera, Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak uste badu komenigarria dela jazarpenaren ustezko egoerek iraun ez dezaten eta salatzailearen segurtasuna eta osasuna zaintzeko, orduan batzordeak Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari proposatuko dizkio kautelaz hartu beharreko neurriak, arreta berezia jarriz, beharrezkoa bada, ustezko biktima eta salatua elkarrengandik banantzeko.

5.3.1. Metodo informala:

Tratamendu hau bizkor eta modu konfidentzian egin beharko da, eta haren helburua da arazoaren konpontzera hurreratzeko; horretarako, arazoa bera arakatuko du, zelan eta alde bien arteko komunikazio- eta ulertze-giroa sortuz, betiere konponbide negoziatu bat bilatze aldera.

Hitzezko komunikazio bat, kexa izaerakoa, Aholkularitza eta Laguntza Batzordeari eginez hasi ahal izango da, edo honelako egoerarako sortutako posta elektronikoko helbidera idazki labur bat bidaliz hasi ahal izango da; izan ere, helbide horren berri eman beharko zaie Foru Aldundiko langile guztiei, hauek hura ezagutu dezaten.

Kexari ez zaio salaketa deituko, salaketa metodo formalean egiten dena baita; bada, kexa hori “erreferentziako pertsona”k —batzordeko kide denak— aztertu eta balioztatuko du zelan eta elkarrizketa bat eginez bere burua jazarria dela uste duen pertsonarekin, egoeraren hasierako balioztapena egiteko; hori ez ezik, hark izan ditzakeen zalantzen inguruko informazioa emango dio, bai eta hark eskura dituen aukera eta ekintza guztiei buruzko informazioa eman ere.

Elkarrizketa hori oinarri harturik, “erreferentziako pertsona”k bilerak egin ahal izango ditu ustezko erasotzaile eta kexaren jasotzaile denarekin edo eskatu ahal izango du berak beharrezko irizten dion eremuren bateko aditu batek esku har dezan; horren guztiaren helburua da sexu-jazarpenera edo sexuan oinarritutako jazarpena geldiaraztea, bai eta alde biek onartutako konponbidea lortzea ere.

Hamar (10) egun balioduneko eperik luzeenean —kexa aurkezten den egunetik zenbatuta—, “erreferentziako pertsona”k balioztatuko du izan litekeen jazarpenari buruzko informazioa sendoa den edo ez, eta azaltzen diren gertakariak kongruenteak direla edo, bestela, gertakarietan zehaztugabetasunak eta kontraesanak daudela ikusi ahal izango du, zertarako eta proposamen hauetako bat egiteko:

- Kasua amaitzea, honengatik:

- Halako jazarpenik ez egoteagatik.
- Jazarria dela uste duen pertsonak eta kexaren jasotzaileak jarduketa identifikatu eta aztertu eta gero, kexaren jasotzaileak horrelakorik berriro ez egiteko konpromisoa hartzeagatik.
- “Erreferentziako pertsona”k kasua konpontzeko zenbait jarduketa proposatu eta alde biek euren akordio eta adostasuna erakusteagatik.

Jasotako guztia eta lortutako proposamenak Aholkularitza eta Laguntza Batzordeari bidaliko zaizkio, eta honek egingo ditu balioztapena eta amaierako ondorioak.

- Kasua ez amaitzea, bai jazarria dela uste duen pertsona gogobeterik geratzen ez delako proposatzen den konponbidearekin, bai konponbidea kexaren jasotzaileak betetzen ez duelako, bai Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak aztertu eta balioztatutako jarduerak larritzat edo oso larritzat jotzen dituelako.

5.3.2. Metodo formala:

Metodo hau hasiko da, bai metodo informalaren emaitza uste zena izan ez delako, bai Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak jarduerak larritzat edo oso larritzat jo dituelako —orduan, batzorde horrek zuzenean sustatu behar du metodo hau—, bai jazarria dela uste duen pertsonak metodo hau erabil dezakeelako metodo informalera jo barik horrela nahi badu.

Salaketa idatziz aurkeztu beharko da horrelako egoeretarako sortutako posta elektronikoko helbidera, eta Aholkularitza eta Laguntza Batzordeari zuzendu behar zaio; batzorde horrek, eragindako aldean nortasuna isilpean zaintzeko, zenbakizko kode identifikatzaile bat esleituko dio idazkiari, eta kode hori agertuko da une horretatik aurrera sortzen den dokumentazio osoan.

Era berean, salaketa horren berri emango die Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari eta Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiari, bai eta Segurtasun eta Osasun Batzordeari ere.

Aldi berean, salaketaren aurkezpena salatuari al bait lasterren jakinaraziko zaio, eta idatziz egingo zaio zitazioa —entzunaldi izaeraz—, data eta ordua jarritz, hurrengo zazpi (7) egun baliodunetan; gainera, salaketa bat dagoela esango zaio, eta ohartaraziko zaio ezen agertzen ez bada ez-agertze hori gertakarien ikerketako instrukzio-egintza legez hartu ahal izango dela. Ematen zaion entzunaldi horretara salatzailea joan ahal izango da edo ez, betiere salatzaileak berak aukeratuta. Alde bietako edozeinek —salatzaileak edota salatuak— eskatu ahal izango du prebentziorako eskuorde bat egon dadila edo, berak komenigarria dela uste badu, beste langile batzuk egon daitezela, betiere lekuko-froga eratzeko.

Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak, jarraian, gertakariak ikertuko ditu; elkarrizketak izango ditu aldeekin eta lekukoekin eta eragindako hirugarrenekin, honelakoak badira; beharrezkoa dela uste badu, kanpo-aholkularitza eskatuko die sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentzio eta jarduketako eremuan adituak diren pertsonen zein antolakundeei, bereziki, Emakunderi eta Osalani. Era berean, foru-sailetako agintari eta enplegatu guztiak derrigortuta daude batzorde horri, ikerketa eta instrukzioan zehar, beharrezko aurrekari eta txostenak ematera, bai eta jarduketak egiteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzera ere. Ikerketa balioztatze-txosten batean gauzatuko da; txosten hori hamabost (15) egun balioduneko eperik luzeenean gertatu beharko da —egunok zenbatu behar dira lehen aipatutako entzunaldia egin zenetik—; edozelan ere, egunok beste hamar (10) egun baliodunetaraino luzatu ahal izango dira modu justifikatuan, eta txostenean azalduko dira lortutako ondorioak, ohartutako inguruabar aringarri eta astungarriak, eta kasu horretan eman daitekeen ebazpen-proposamena.

Proposamen horrek ondoko jarduketak jaso ahal izango ditu:

- Salaketa artxibatzea: bai objekturik ez egoteagatik edo behar besteko aztarnarik ez egoteagatik; bai salatzaileak atzera egiteagatik —salbu eta ofizioz salaketa ikertzen jarraitzen denean jazarpen-aztarnak antzematearren—; edo aurretik egindako jarduketetatik salaketaren edukia ebatzitzat jo ahal izateagatik, alde bien artean lortutako akordioa —horrelakoa badago— aditzera eman.
- Diziplinazko espedientea hastea, baldin eta kasua aztertu eta gero ulertzen bada beste faltaren bat, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena ez beste bat, egin dela, eta falta hori araudian tipifikatuta badago.
- Diziplinazko espedientea hastea, sexu-jazarpenaren edo sexuan oinarritutako jazarpenaren aztarna argiak egoteagatik; orduan, Aholkularitza eta Laguntza Batzordearen balioztatze-txostena hartuko da erabaki beharreko diziplinazko espedientearen beraren aurreko informazio-txosten legez. Ustezko delitu bat gertatu delako aztarna argiak badaude, salaketa epaitegi eskudunari bidaliko zaio, eta bidaltze horrek ekarriko du Foru Aldundiak laguntza juridikoa eta psikologikoa eman beharra.

Edozelan ere, Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari eskatuko dio beharrezkotzat hartzen diren neurriak har ditzan, zertarako eta salatutako jarduketak berehalaxe geldiaraz daitezkeen. Uste bada badagoela zelanbaiteko arrisku psikosoziala, proposamen bat gertatu ahal izango da antolaketaren aldetik izan daitezkeen konponbideak hartzearen inguruan, betiere konponbideok, azken batean, lagundu dezaten azaldutako egoera ebazteko.

5.4. Ondorioa

Behin ebazpena hartu eta gero, hura prozesuko aldeei bidaliko zaie, eta aldeok alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte zazpi (7) egun balioduneko eperik luzeenean; alegaziook beste zazpi (7) egun baliodunetako eperik luzeenean ebatziko dira, behin haiek aurkezten direnetik zenbatuta. Jarraian, Aholkularitza eta Laguntza Batzordeak Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari proposamena bidaliko dio; izan ere, azken honen emaitza izan daiteke: edo aurkeztutako alegazioa(k) ezestea, lehen emandako ebazpena ontzat hartuz, edo lehen azaldutako proposamena aldatzea. Kasu biotako edozeinetan, hartutako erabakia biktimari edo ustezko biktimari bidaliko zaio, bai eta salatzaileari —berau biktima ez bada—, salatutakoari, Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiari eta Segurtasun eta Osasun Batzordeari ere.

5.5. Berme pertsonalak eta beste batzuk

- Ez da onartuko errepresaliak hartzea salatzailearen aurka, ez eta lekukoaren kontra, edo jazarpen-ikerketetan laguntzen edo parte hartzen dutenen aurka, ez eta euren kontra edo beste batzuen aurka gertatzen diren horrelako portaerei jarkitzen zaizkien kontra edo portaerok kritikatzan dituztenen aurka ere.
- Ostera, prozeduran zehar jazarpenaren ustezko biktimaren kontra edo haren salatzaileen aurka errepresaliak edo kalteak gertatzen badira, pertsona horiek jazarpena gertatu baino lehenagoko egoera berera itzuliko dira gutxienez; betiere, indarrean diraute egoera honengatik eta egoera honek ekar ditzakeen ondorioengatik hasi nahi diren prozedura guztiek.
- Frogatzen bada hirugarrenek egindako salaketak, alegazioak edo adierazpenak asmo jakin batez egin direla, edo ez direla zintzoak izan edo dolozkoak izan direla, orduan diziplinazko jarduketak eroango dira aurrera haiek egin dituztenen kontra; hori ez ezik, indarrean diraute zuzenbidearen arabera bidezko diren jarduketek.
- Behar besteko frogarik ez badago salaketa oinarri duna dela adierazi ahal izateko, orduan gerta daiteke salatzailea edota ustezko biktima derrigortua ez izatea bere gogoz kontra salatuarekin lan egitera; horretarako, Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuak txosten bat gertatuko du salatzailea edota ustezko biktima aldatu edo lekualdatzea beharrezkoa den balioztatzeko.

6.- JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

6.1 Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuak urtean-urtean protokolo honen aplikazioari buruzko jarraipen-txosten bat gertatuko du; horretarako, aurkeztutako kexa eta salaketa guztien kontrol eta erregistroa egingo du, metodo informala bidez zein metodo formalaren bidez izapidetutako espedienteen ebazpenak kontrolatu eta erregistratu ditu, bai eta metodo formalek ateratzen diren balioztatze-txostenak eta agertzen diren alegazioak ere.

Txosten horrek adierazleak izango ditu izapidetutako salaketen kopuruaren gainean, egindako metodo informalaren zein formalaren inguruan, zehatutako salaketei buruz, eta Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuaren ustez erantsi behar diren datu guztiak ere; azkenean, txostena Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari, Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateko Zuzendaritza Nagusiari eta Segurtasun eta Osasun Batzordeari aurkeztuko zaie.

6.2 Protokolo hau urtean-urtean aztertuko da beharrezko edota komenigarritzat hartzen denean hura moldatzeko; azterketa hori egingo da protokoloaren beraren eraginkortasuna berdintasunerako neurri gisa ebaluatzeko eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontrako prebentzio- eta jarduketaren metodo gisa ebaluatzeko, bai eta eraginkortasun hori ebaluatzeko arlo honi buruz legeak aldatzen direnean edo jakite teknikoak hobetzen direnean.

7.- AZKEN XEDAPENA

Protokolo honetan aurreikusten ez den guztirako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean arautzen dena aplikatuko da.

SALAKETA-EREDUA**ESKATZAILEA**

	ERAGINDAKO PERTSONA
	EGOERAREN BERRI DUEN LANGILEA / EGOERAREN LEKUKOA
	PREBENTZIORAKO ESKUORDEA
	SAILEN ARTEKO TALDE TEKNIKOKO (BERDINTASUN TALDEKO) KIDEA

JAZARPEN-MOTA

	SEXU-JAZARPENA
	SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENA

ERAGINDAKO PERTSONAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK:
IFZ: SEXUA: EMAKUMEA <input type="checkbox"/> GIZONA <input type="checkbox"/>
LANPOSTUA:
LANTOKIA/SAILA:
FUNTZIONARIO/A <input type="checkbox"/> LAN-KONTRATUDUNA <input type="checkbox"/> BESTELAKOA <input type="checkbox"/>
HARREMANETARAKO TELEFONOA:

GERTAKARIEN DESKRIBAPENA

Lekukoren bat egonez gero, adierazi haren izen-abizenak

ERANTSITAKO AGIRIAK

BAI (zehaztu) EZ

ESKABIDEA

Babes-neurri eraginkorrak ezartzea eskatzen dut sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko

Herria eta data Interesdunaren sinadura

